2017-XI-27
Número **538.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Zerga erreforma patronalaren mesedetan

**EAJ eta PSE alderdiek iragan astean iragarri zutenez akordioa lortu zuten Sozietate Zerga %28tik %24ra jaisteko. Lehenik eta behin, argi eta garbi esan behar da jaitsiera bidezkoa ez izateaz gain antisoziala dela. Ez da bidezkoa urrats berria delako diru-bilketaren pisua laneko errentetan eroriarazten duen sistema fiskalean sakontzean. Eta antisoziala da diru-sarreren zati bati uko egiteak, praktikan, zerbitzu publikoen eta prestazio sozialen murrizketa-politiken aldeko apustua sendotzen duelako praktikan.**

**Sozietateen Zerga jaitsi izana eta Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak norabide berean doaz. Aurrekontu-politika eta fiskalitatearen inguruko parean daude. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu proiektuak Konstituzioaren 135. Artikulua ezartzeko Rajoyren Gobernuarekin lortutako akordiotik abiatzen da, hau da, zorraren ordainketaren lehentasuna ematea bestelako gaien aurretik (osasungintza, hezkuntza, prestazio sozialak…). Gastu-arauak zehazten du gastu publikoaren igoerarentzak muga bat instituzio guztientzat, EAEkoak barne, EAJk ahalbidetu duena eta zeinen ordainketa Madrilekin adostu baituen Eusko Jaurlaritzak.**

**Sakoneko akordioa dago EAJ, PP eta PSEren artean desberdintasun sozialak eta pobrezia areagotu dituzten politika neoliberalak ezartzeko. Akordio horiek lan eta bizi-baldintzak zehazten dituzten gaietan ematen diren botazioetan egiten dira ikusgarri. Eta hori, Katalunian 155. Artikulua inposatzen duten alderdiekin egiten du, demokraziaren kontrako eraso zuzena suposatzen duena.**

**Gobernuan daudenak patronalaren interesen zerbitzura daude. Patronalak opari berri bat jasotzen du, eta zergen murrizketa berriak eskatzeko bere estrategiatik onurak eskuratzen ditu. ELAtik behin eta berriz aipatu dugunez, gurean gutxi eta baldar biltzen da. Erreforma hau urrats berri bat da norabide horretan.**

#EmanBostekoa
Garaipenuari!

## A pesar de que el acuerdo en el Grupo CEL no es el deseado, Josean Fernández destaca la lucha y la dignidad de la plantilla

# "HA SIDO UNA LUCHA MUY DIGNA"

El lunes 27 de noviembre la mayoría de los Comités de Empresa del Grupo CEL firmó un acuerdo con el inversor italiano Lucart sobre las condiciones de trabajo. El acuerdo fue respaldado por el resultado de las votaciones de la Asamblea General realizada el día 20 en Zalla: 150 votaron a favor del acuerdo, 15 en contra y 10 en blanco. Josean Fernández, responsable de ELA, analiza esta firma.

**-¿Qué valoración haces del acuerdo?**

-Para ELA no es un buen acuerdo. El hecho de que el 22 de noviembre terminaba la fecha impuesta por el Administrador Concursal para llevar a las empresas a liquidación y, también, el ultimo día del periodo de consultas del ERE de extinción para la totalidad de las y los trabajadores ha sido determinante en el desenlace final. Los inversores y el propio Administrador Concursal han presionado con la liquidación de la empresa, en caso de no llegar a un acuerdo. En este contexto, creo que es importante destacar el trabajo honesto que durante estos meses ha llevado a cabo la sección sindical para mantener la actividad de la empresa y el mayor número de trabajadores y trabajadoras en la plantilla.

No es el acuerdo que deseábamos. Seguimos manteniendo que no debería haber ningún despido traumático –se recogen 4–, aunque se han mejorado las indemnizaciones y logrado una bolsa de trabajo para todos los despedidos durante 5 años. Además, los salarios de cerca del 80% de la plantilla se verán reducidos en torno al 9% y el resto en un 20% de la masa salarial.

**-Durante este proceso ELA siempre ha sido muy crítica con la labor de las instituciones. ¿Por qué?**

-Desde mayo, cuando la empresa entra en concurso, los y las trabajadoras de CEL han estado solos. Sin apoyos de ninguna institución. Por contra, la ciudadanía de Enkarterri ha participado en las movilizaciones que se han llevado a cabo durante todos estos meses

Denunciamos que la Diputación Foral de Bizkaia, propietaria de algunas máquinas, no se haya implicado en garantizar las condiciones laborales y el mantenimiento de todos los puestos de trabajo. Y ello, a pesar de que en octubre en Juntas Generales de Bizkaia todos los grupos políticos aprobasen una moción en favor de que no hubiese despidos. No han querido o sabido apoyar a una comarca tan degradada industrialmente como Enkarterri.

El Gobierno Vasco, que desapareció en mayo de la empresa (tenía un 40% de las acciones y ha sido máxima responsable en que entráramos en concurso) nos señaló que si había un proyecto industrial serio, ellos lo apoyarían. Tras meses sin saber nada del Gobierno en la ultima reunión, a finales de octubre, nos señalaron que las posibles ayudas para CEL estaban en la página web del Gobierno. Nos parece una actitud absolutamente injustificable.




**-También hemos sido muy críticos con el Administrador Concursal...**

-También creo que es necesario denunciar su actitud. Desde el inicio aceptó e impulsó una reducción del 20% salarial para toda la plantilla. Posteriormente presentó un ERE para toda la plantilla, que ha sido utilizado para presionar a llas y los trabajadores. Y no podemos olvidarnos de la anterior dirección del grupo, Zurbost, responsable de una nefasta gestión que abocó a la empresa al concurso de acreedores.

A pesar de que el acuerdo no es el deseado, y de que hubo una opción de llegar a un acuerdo sin despidos con otro inversor catalán y que incomprensiblemente a última hora decidió no entrar, ELA destaca la lucha de la plantilla de CEL.

Hemos realizado muchísimas movilizaciones, tanto en Enkarterri como ante las Administraciones Públicas. Tras semanas de negociaciones muy duras hemos conseguido mejorar considerablemente los planteamientos iniciales de destrozo de las condiciones de trabajo. Esta mejora no se puede entender sin la implicación, la denuncia y la movilización permanente de las trabajadoras y trabajadores de CEL. Ha sido una lucha muy digna.



## Presupuestos2018#aurrekontusozialak

# MÁS DE LO MISMO




Convocadas por la Carta Social de Derechos de Euskal Herria 1.500 personas se reunieron el 21 de noviembre en Gasteiz para exigir unos presupuestos sociales que sirvan para lograr otro modelo de sociedad. En primer lugar se realizó un acto en el pabellón Mendizorroza donde se hizo una lectura crítica del proyecto de presupuestos anunciado por el Gobierno Vasco; luego una manifestación recorrió Gasteiz para acabar frente al Parlamento Vasco.

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz Txiki, fue una de las personas que intervino en el acto. Muñoz denunció que con estos presupuestos aumentarán las desigualdades sociales. "Las desigualdades aumentan con crecimiento económico. Ello es debido a las decisiones tomadas durante la crisis, que han debilitado la participación de los salarios, las prestaciones sociales y el papel de los servicios públicos"

### EN IRUÑEA, LA CITA FUE EL 28 DE NOVIEMBRE

Por su parte, la Carta Social de Derechos de Euskal Herria y la iniciativa social Parlamento Navarro organizaron un acto sobre los presupuestos de la Comunidad Foral para el martes 28 de noviembre (Nota: esta publicación se cerró el 27 de noviembre). Unos presupuestos sobre los que ELA hizo una comparecencia pública la pasada semana. "Son continúistas, sin participación social y elaborados para satisfacer las políticas de Rajoy y los intereses de las entidades financieras", tal y como los definió Mitxel Lakuntza, coordinador de ELA Navarra.

## LA PARTE DE LA RIQUEZA DESTINADA A SERVICIOS PÚBLICOS Y PRESTACIONES SOCIALES ES CADA VEZ MENOR



El presupuesto es la principal herramienta de acción que tienen las instituciones. Se decide cuánto dinero se va a destinar a Salud o a Educación, así como la cuantía de las prestaciones sociales de cada año. Y está en cuestión también la política fiscal que se quiere seguir (cuánto se va a recaudar, y de dónde). El debate presupuestario debería ser, por tanto, un debate eminentemente político, en el que se confrontasen los distintos modelos de sociedad que se defienden. Y ese debate, obviamente, no puede quedar circunscrito a los grupos parlamentarios. La sociedad organizada (sindicatos, movimientos sociales, etc.) tiene mucho que decir sobre ello. El Gobierno Vasco ha presentado su proyecto de presupuestos para 2018. Vamos a tratar de resumir lo más importante de dicho proyecto:

**1. Es un proyecto condicionado por la regla de gasto.** El 11 de julio en el Congreso se aprobó (con los votos del PP, Ciudadanos y el PNV) la denominada regla de gasto, por la que en 2018 "el gasto computable de la Administración Central, de las Comunidades Autónomas y de las Corporaciones Locales no podrá superar el 2,4%" el de 2017. Es decir, se topa el aumento del presupuesto de todas las instituciones, incluídas las de Hego Euskal Herria. Sin el voto del PNV este límite no existiría. El 19 de julio el Gobierno Vasco y las 3 Diputaciones de la CAPV acordaron con el Gobierno de Rajoy el cumplimiento de esa regla.

**2. Los ingresos de las Diputaciones están aumentando más de lo previsto.** Ello podría dar lugar a un aumento de las dotaciones presupuestarias. En vez de ello la aplicación de la regla de gasto supone seguir con los recortes, a la vez que se prevé tener superávit (478 millones en 2017). Hay dinero, pero la opción es no destinarlo a cubrir las necesidades sociales.

**3. La regla de gasto es un ataque frontal a la capacidad de las instituciones vascas de decidir sus propios presupuestos**, que en realidad se deciden en Madrid. El Gobierno Vasco y las Diputaciones Forales (al igual que el Gobierno de Navarra) deberían explicar porqué lo han acordado.

**4. Lo único que se prioriza es el pago de la deuda.** A esta partida el Gobierno Vasco pretende destinar el año que viene 1.346 millones, 310 más que en 2017. En 2009 el Gobierno Vasco dedicó solo 83,6 millones a deuda pública. El incremento desde entonces es, por tanto, de 1.260 millones de euros.

**5. El Gobierno contará con 9.978,2 millones de euros para cubrir sus funciones** (Salud, Educación, políticas de empleo, vivienda, prestaciones sociales, Ertzaintza,…). Son 200 millones menos que en 2009. Equivalen al 12,8% del PIB, frente al 15% de la riqueza que suponían en 2009. Para mantener ese 15%, en 2018 se tendrían que destinar a estas funciones 1.709 millones de euros más de los presupuestados.

**6. El presupuesto destinado a Salud solo aumenta un 1,5% respecto a la previsión de cierre de 2017.** De este modo la parte de la riqueza que se destina a Salud se sitúa en el 4,9%, frente al 5,2% del PIB de 2009.

**7. El presupuesto para Educación baja respecto a 2017** (45 millones, un 1,4%), y equivale a solo el 3,5% del PIB, frente al 4,2% de 2009. Esta reducción se constata en todos los tramos educativos: Educación infantil y primaria; Secundaria y Formación Profesional; Educación universitaria.

**8. En las prestaciones se siguen aplicando recortes**: se mantiene el recorte de las cuantías del 7% que se aplica desde 2012 en el conjunto de las prestaciones. El presupuesto destinado a las Ayudas de Emergencia Social se congela en 27 millones de euros. Se muestra la voluntad de recortar enormemente la posibilidad de acceder a las prestaciones por vivienda, cuya cuantía máxima sigue fijada, un año más, en 250 euros mensuales. Y se pretende subir la RGI un 1,5%, aumentando previsiblemente el diferencial con el Salario Mínimo.

**9. En lo referente a las condiciones de trabajo del personal al servicio de la administración, la política también es continuista:** incremento salarial máximo del 1,5%, en función siempre de lo que establezca Madrid; negación del derecho a la negociación colectiva, al imponer las condiciones el gobierno de manera unilateral.

**10. Todas estas políticas tienen como resultado un agravamiento de las desigualdades sociales y de la pobreza**, lo que afecta de manera especial a las mujeres, que sufren la desigualdad y la pobreza en mayor medida y que acaban haciéndose cargo del trabajo de cuidados que aumenta por las recortes en áreas como la salud, la educación o los servicios sociales.

En definitiva, este proyecto de presupuestos avanza en la dirección de destinar cada vez una parte menor de la riqueza a los servicios públicos y a las prestaciones sociales. Se continúa por la senda de desmontar poco a poco el papel del sector público en la economía, dejando cada vez más esferas al albur de lo que ocurra en el mercado.

En este contexto, es tiempo de confrontar los modelos sociales que cada organización defiende. En lo que afecta al debate presupuestario, quienes creemos que es necesario una transformación radical del modelo económico y social, que ponga a las personas y el planeta en el centro, en vez de los intereses del capital, no podemos aceptar como punto de partida el presupuesto presentado. Su orientación neoliberal y antisocial es muy coherente. Solo cabe su rechazo.

***Mikel Noval, responsable de política social***

## #EmanBostekoaGaraipenari!

# NOLA MAKURRARAZI DUTE 60 LANGILEK MULTINAZIONAL ERRALDOIA?



**El 14 de noviembre la plantilla de la empresa de transporte Dachser firmó un acuerdo con la dirección que mejora las condiciones laborales y les blinda ante la reforma laboral. Con este acuerdo las y los trabajadores de esta multinacional, situada en Zubieta, dieron por finalizada la huelga indefinida que estaban desarrollando. Estamos ante un muy buen acuerdo, un acuerdo fruto del trabajo sindical realizada los últimos años. Xabier Otegi, delegado de ELA en Dachser, revela en este artículo como 60 trabajadores y trabajadoras han sido capaces de derrotar a una multinacional tan potente como Dachser.**

**Nola da posible indibidualismoa eta azpikontratak nagusi diren eta sindikalizazio oso baxua duen garraio arloko lantoki batean 60 langileren indarrak multinazional erraldoi bat makurrarazi eta hitzarmen bat sinatzera iristea?**

Esango nuke Zubietako Dachser-en jarraitu dugun bidea ez dela oso ohikoa. Urtebete atzera begiratuko bagenu inork ez luke esango lortuko genukeenik. Afiliazio baxua, esperientziarik gabeko enpresa batzordea, arazoak norberak gerentearen bulegoan konpontzeko kultura, lan baldintza indibidualizatuak, 2009an iraungi zen lan hitzarmen bat... Sindikatuek apenas zuten presentziarik, eta askotan lan erreformei buruzko informazio bilerak egitera mugatuta. Sistema kapitalistak zuzen-zuzenean egiten die kalte langileei, kalte neurgarriak lantoki barruan. Patriketan, osasunean eta bestelako lan baldintzetan neurgarriak diren kalteak. Eta ez zuten sumatzen sindikatuak kalteoi modu neurgarrian, patriketan, osasunean eta bestelako lan baldintza kaxkarretan aurre egiten laguntzen zienik.

Logikak dio hitzarmen bat sinatzera eramango gaituen borroka hasi aurretik nahitaezkoa dela sindikalizazio maila igotzea, antolakuntza indartzea eta ondoren etorriko dela borroka. Guk dena batera egin dugula esango nuke. Borrokari ekinez antolatu gara, bidea eginez indartu. Ez dugu itxaron nahikoa indar genuela jakin arte bideari ekiteko.

*El camino que hemos seguido en Dachser no ha sido muy habitual. Echando la mirada atrás hace un año nadie diría que hoy sería posible una lucha y un acuerdo como el que hemos conseguido*

**Duela urtebete enpresa batzordeko kideok estrategia aldaketa bat proposatu genuen.** Egunero jasotzen genituen belarrondokoei erantzuna ematen egotetik iniziatiba guk hartzera eramango gintuen estrategia aldaketa bat. Enpresa hitzarmena negoziatzen hastea proposatu genuen langile asanblada batean. Baiezko biribila jaso zuen proposamen hark. Langile guztien besoak gora bozketa orduan. Sindikatutik eskakizun bakarra bideari ekiteko: afiliazioa. Hurrengo hilabetean 26 lankide inguru afiliatu ziren ELAra. 100 langile pasatxoko lantoki batean 45 inguru ginen afiliatuak. Gure indarraz geneukan datu bakarra horixe zen. Gure mobilizazio indarra zenbatekoa zen ez genekien.

Enpresari negoziazio mahaia osatzeko eskatu genionean erantzun argia jaso genuen: inolaz ere ez. Bataren eta bestearen indarrak neurtzeko unea iritsi zen. Ez ordea negoziaketa gaietan presionatzeko, negoziazioa hasteko baizik. Greba eguna proposatu eta langile asanbladak onartu zuen. Behingoz langileon asanbladak markatu zituen egun haietako elkarrizketak. Gure aldarrikapenez hitz egiten zen eta grebarako deiak egunerokoa hankaz gora jarri zuen. Orain enpresa zen gure erabakiei erantzuten denbora pasa behar zuena, eguneroko kudeaketarako denbora galduz. 60 lankide inguruk hartu genuen parte zuzenean piketeetan. Dena aldatu zuen eguna izan zen hura. Ez genuen enpresa mahai baten inguruan esertzea lortu, baina lehen aldiz langileok elkarrekin hitz egiteko ordu luzeak eduki genituen. Lan baldintzez hitz egiteko, baina baita norberaren familia, afizio eta ingurukoez hitz egiteko ere. Honek batu gintuen, indartu. Helburua lortu ez genuenez, piketean bertan egin genuen asanbladan greba mugagaberako deia egin eta onartu zen. Horrela lortu genuen enpresa makurtzea eta negoziazio mahaia irekitzea.

**Eta hor garaipenaren gakoetako bat. Negoziatzen hasterako langileok lortua genuen garaipen kolektibo bat.** Eta oso desberdina da negoziazio bat besterik gabe osatzea edo negoziatu behar duen bi aldeetako batek garaipen batekin hastea negoziaketa hori. Asanblada indartu zuen horrek, langileak ahaldundu eta eskirolak eta enpresa ahuldu.

Ez ditut negoziaketaren 6 hilabeteetako nondik norakoak azalduko. Azken minutura arte zikina izan da. Joko zelaia guk aukeratu genuen, baina jokamoldea eurek markatu zuten. Guk joko garbia nahiago genuen, baina orkatilara ostikoekin erantzun ziguten. Lehen aldia zen Dachser multinazional erraldoia delegazio txiki bateko langileekin negoziatzen ari zena. Hilabete hauetan informazio jarioa etengabea izan da enpresa batzordearen eta asanbladaren artean. Bilerak, eztabaidak, bozketak... eta berriro ere greba mugagabe bat deitu ostean, akordioa. Langileok ez genituen lau errege handira horrelako hordagoak botatzeko, baliteke. Ez dugu inoiz jakingo hori, hordagoa irabazi ostean ez baitira kartak erakusten. Baina argi dago enpresak ez zuela karta onik.

Garaipen bat lortu dugu eta aurretik dugun bidearen lehen pausoa izango da. Akordiora bidean gauza askori egin diogu uko, eta hauek lortzea izango da hurrengo urteetan egin beharrekoa. Bideari ekinez enpresa batzordearen papera indartzea da lorpenetako bat. Baita asanblada indartzea ere. Arazoak eta hauen konponbideak kolektibizatzeko bidean urrats bat eman dugu, baina badugu zer hobetua oraindik. Sindikatuaren lana ere oso indartua atera da. Behingoz gure lan eremu konkretuan onura konkretuak ekarri dizkio sindikalismoak langilegoari. Lantokia sindikalizatzen hasi besterik ez gara egin. Eta ekinez ari gara hori egiten. Langileek apenas ezagutuko dute (eta agian ez die apenas axolako) sindikatuak beraien lantokitik kanpora egindako lana. Ez dute ezagutu ere egingo Bizkaiko Erresidentzietako borrokan lortutako garaipena, ez dute jakingo Jaurlaritzaren aurrekontuei egiten dien balorazioa, ez dituzte irakurriko txosten eta artikuluak. Baina orain badakite sindikatua garaipenerako ezinbesteko tresna dela. Beraien patriketan nabarituko dute sindikatuaren presentzia.

*Hemos pasado de un escenario donde casi no había afiliación y el sindicato casi no existia a otro donde hay afiliación, organización y una dinámica reivindicativa propia*

*Ahora la plantilla de Dachser sabe que el sindicato es un elemento imprescindible para mejorar nuestras condiciones laborales y de vida. Y lo saben porque también lo notan en sus propios bolsillos.*

Hurrengo hilabeteetan hori dena ez ahaztea eta sindikatuaren presentzia bizirik mantendu eta indartzea da tokatzen zaiguna. Greba egunean sortu zen su hura pizturik mantentzea. Emaitza konkretuak ematen jarraitzea. Agian ondoren lortuko dugu norbaitek ostiraleko artikuluak edo Landeia irakurtzea.

Azaroaren 21ean Jaurlaritzaren aurrekontuen gainean Gasteizen egin zen ekitaldira hiru ordezkari joan ginen lehen aldiz. Bagabiltza, poliki-poliki. Ekinez.

***Xabier Otegi, Txapis,***
***ELAko delegatua Dachser garraio empresan***



**Azaroak 25, Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko eguna #IndarkeriaSexistarikEz**

# "MENPEKOTASUN SISTEMAK EMAKUMEEN AURKAKO JAZARPENA NORMALTZAT HARTZEN DU"







Iragan larunbata Azaroaren 25a izan zen, Indarkeria Sexistaren aurkako Nazioarteko Eguna. Hori dela-eta ELAk hainbat ekimen antolatu zituen Iruñan –azaroak 22– eta Bilbon –azaroak 24–. Azaroaren 25ean, berriz, ELAk bat egin zuen Euskal Herriko mugimendu feministak deitu zituen mobilizazioekin.

Bai Iruñean eta bai Bilbon gai bera izan zen jardunaldien ardatza: lanean gertatzen den jazarpen matxista. Ehun lagun inguru bildu ziren Nafarroako hiriburuan egindako ekimenean. Lehenengo Lohitzune Zuloaga Lojok hitzaldia eman zuen Kaldereria aretoan. Zuloagak sexu-jazarpenaren ezaugarriak azaldu zituen. "Horren atzean beti dago sexu-eskari bat, botere harremanak probestuz. Kasu gehienetan, emakumeek jasaten dute euren nagusien aldetik, batzuetan prekarizazioaren ondorio bezala, baina baita lanpostu kualifikatuetan daudenei ere eragiten die. Beste motatako jazarpena da sexu arrazoiengatik jasotzen dena, sexu-eskaririk gabe baina bai diskriminazioaren bidez, beti ere emakumea izateagatik". Ondoren kontzentrazioa egin zen.

Bilbon, berriz, Irantzu Varela Urreztizala mintzatu zen EHUko Paraninfoan egindako jardunaldian. Varelak azaldu zuenez, "menpekotasun sistemak emakumeen aurkako jazarpena normaltzat eta naturaltzat hartzen du. Ez dugu ahaztu behar borroka feministaren subjektu politikoa emakumea dela, baina gizonak behar ditugu aliatu".




*El acoso machista en el trabajo fue el tema que ELA desarrolló este 25 de noviembre, Día Internacional Contra la Violencia Sexista*

## LABURREAN / BREVES




**• Mobilizazioak Bizkaiko Bulego eta Langeletan**

Sektoreko patronala mahai negoziatzailean egiten ari den xantaiari erantzun asmoz, ELA eta LAB sindikatuek mobilizazio egutegi bat garatuko dute datozen asteetan. Mobilizazio txanda honek otsailaren lehenean goia joko du; egun horretan lanuztea deituta dago.

Zortzi hilabete igaro dira negoziazioei ekin zitzaienetik, eta patronalak egin duen eskaintza bakarra lotsagarria da, iseka bat Bizkaiko bulego eta langeletako sektorea osatzen duten langile guztientzako.

**• Acuerdo en Perfil en Frío, del Grupo Condesa**

La plantilla de Perfil en Frío –Grupo Condesa– alcanzó el 20 de noviembre un acuerdo que, entre otros aspectos positivos, consigue eliminar el arbitraje obligatorio en caso de intento de descuelgue, reduce la jornada laboral en 20 horas e incrementa el salario con referencia al IPC.

El acuerdo ha sido posible gracias a la movilización de la plantilla; han sido necesarios 6 días de huelga y la amenaza de huelga indefinida de 3 días a la semana para lograr este acuerdo.




**• Elkartasuna Errenteriako TAO zerbitzuko langileekin**

Azaroaren 16an ELAko ehunka ordezkari bildu ziren Errenterian OTA-TAO zerbitzuko langileei euren elkartasuna adierazteko. Udalak langile gutzi hauek kaleratu nahi ditu abenduaren 5ean. Egun horretatik aurrera, zerbitzua kudeatzeko orain arteko langileekin kontatu beharrean, kontrol lana udaltzaingoak egingo du. Erabaki honekin 25 urtez zerbitzu horretan aritu diren langileak kalean geratuko dira, eta enpresak ez du berkolokaziorik aurreikusten. ELAk Errenteriako udal gobernuan dauden alderdiei –EH Bildu eta Irabazi– euren erabakia zuzentzeko eskatzen die.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**